

## Apirilaren 28ko hauteskundeak direla-eta, Caritasek "Gizarte justuago bat" eraikitzeko proposamen politikoak aurkeztu ditu.

Hauteskunde orokorren aurrean ohikoa den bezala, Espainiako Caritasek bere **Proposamen-agiria** kaleratzen du, eta –sarreran esaten den bezala– alderdi politiko guztiei zenbait “lehentasun neurri” eskaintzen zaizkie “gizarte humano, justu eta demokratikoago bat” eraikitzeko beharrezkoa den “pertsona bakoitzaren duintasuna eta datxekion eskubideak” babestu, eta “anaitasuna eta guztion ongizatea” sustatzeko.

**“Gizarte justuago baterantz. 2019. urteko hauteskunde legegileetarako proposamen politikoak” dokumentuak**, 8 neurri zehatz garatzen ditu, eta dagoeneko hasiak dira Legebiltzarreko taldeei aurkezten.

Dokumentuaren hitzaurrean azaltzen den bezala, helburua da "Errealitatearen eraldaketari zerbitzatu behar zaio, eztabaida publikoari, gizarte bazterketaren mugetan gure eguneroko presentziatik, ideia batzuk, premiazko zein eraginkor eta konstruktiboak, alderdi politiko ezberdinek, ahulenen premiekiko, erantzun zuzen, eraginkor eta kalitatezkoak artikulatu ditzaten.

### **Caritasen zeregina gizarte-eraldaketako eragile gisa**

Caritasek gizartea eraldatzeko eragile aktibo gisa duen papera aldarrikatzen du, herri zein maila orokorrean. Gizartearen babes nabarmenak bultzatzen gaitu zeregin honetan, (84.000 boluntario, eta 3 milioi erabiltzailetik gora bai Espainian bai eta lankidetzan proiektuetan). Caritasek presentzia zabala du lurralde mailan (70 Elizbarrutiko Caritas eta 6000 parrokiako Caritas), eta baita kristau komunitateetan anaitasunezko zerbitzuan gaitua den erakunde gisa ere.

Proposamen horiek mahai gainean jartzeko beharra Caritasen azken Asanblada Orokorrean ageri den [azken adierazpeneko](#) alertan ere azaltzen da: “gutxi batzuen eskuetan, aberastasun pilaketa eskandalagarria areagotzen ari den bitartean, eguneroko beharrianak duintasunez asetzeko gutxieneko baliabideak ez dituzten pertsona eta familia askoren egoeraren testigu gara”, esaten da bertan.

### **Osatu gabeko justizia soziala**

Caritasen ustez, egoera horiek ez direla kasualitatearen ondorio, justizia sozial osatugabe baten ondorio baizik, eta, beraz, askatasuna, justizia eta elkartasuna

bezalako neurri sakonak bultzatzen dituen eragin politikoko ekintza publiko baten bidez jorratu behar direla.

**Proposamen-agiriaren** sarreran irakur daitekeenez, "Giza Eskubideak erabat bermatzen dituen, eta Nazio Batuek azken urteotan Espainiari egindako gomendioak betez, herritar guztien duintasuna babesten duen legegintza-esparru bat eratzea premiazkoa da". Eta honako hau gehitzen da: "Jesusen era jarraituz, hau da, pertsona beti zentroan jarriaz, interes ekonomikoak gizakien duintasunaren gainetik egon ez daitezen lan egiten dugu, bereziki, ahaztutako guztienengandik".

Hain zuzen ere, ezin dugu ahaztu , 2017ko [Iglesia Servidora de los pobres](#) pastoralak esaten zuena: "*Ezin dugu isilik egon pertsonen eskubideak aitortu eta errespetatzen ez diren bitartean*".

## 8 proposamenak

Hauek dira, laburbilduz, Caritasek apirilaren 28ko hauteskunde deialdirako aurkezten dituen proposamenak:

**1. 1996an berrikusitako Europako Gutun Sozialaren, eta 1995eko Protokolo gehigarriaren berrespena.** Caritasek proposatzen du Espainiako Erresumak Europako Gutun Sozial berrikusia berrestea, bai eta erreklamazio kolektiboen 1995eko protokoloa ere; bertan jasotako eskubideak –besteak beste, pobreziaren aurkako babesa– Estatuko lurralde osoan dauden pertsona guztientzat.

**2. Pobrezia-egoeran dauden familientzako diru-sarrerak bermatzea.** Caritasek estatu mailako gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko sistema proposatzen du pobrezia-egoeran dagoen pertsona orok gutxieneko diru-sarrera izateko eskubidea izan dezan.

**3. Giza eskubide den etxebizitzara sarbidea.** Caritaseko proposatzen du giza eskubide hau bermatuko duten politika publikoak gauzatu ditzatela gizarte bazterketa egoeran dauden pertsona eta familia guztientzat. Eta irtenarazterik balego, etxe ahulenetatik kaleratuak izan behar duten pertsonak babestuko dituen Lege erreforma.

**4. Etxeko enplegua Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrean erabat sartzea.** Caritasek proposatu du, beharrezko lege-aldaketak egin daitezela sektore honetan diharduten pertsonen eskubideak beste langileenekin pareka daitezen, eta babes soziala erabat bermatuta izan dezatela, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak ezartzen duen bezala.

**5. Bakarrik dauden adingabe atzerritarren babesa eta heldutasunera igarobidea bermatzea.** Caritasek bakarrik dauden adingabeei dagokien atzerritartasun legedia aldatzea proposatzen du, Hautzaro eta Nerabezaroko eskubideen Hitzarmeneko nazioarteko esparruak agintzen duen bezala, ez bakarrik haurren eta nerabeen babesa ziurtatzeko, heldutasunera igarotzea ere bermatzeko.

**6. Giza eskubideak bermatzea, baita kanporatze-prozeduretan ere.** Caritasek, Atzerritartasunaren Lege Organikoaren Bigarren Xedapen Gehigarria indargabetzea eskatu du, inolako bermerik gabe egiten diren kanporatze prozedurei legezatasun itxura eman nahi baitzaie.

**7. Klima-aldaketaren aurka borrokatzea eta energiaren eskubidea bermatzea.** Klima Aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren Lege bat bideratzea proposatzen du Caritasek, baita pertsona guztientzako energia garbia bermatzeko neurri aktiboak ere.

**8. Nazioarteko garapen eta lankidetzaren politika indartzea.** Caritasek giza eskubideen eta ingurumenaren iraunkortasunaren aldeko garapen-politika eskatzen du, baliabide eta kalitate gehiago dituen eta gizarte zibilaren rola indartzen duena.

**Proposamen-agiriaren** edukia iritzi-publikoaren aurrean zabaltzeko asmoz, infografia batzuk prestatu dira, era oso zuzenean, horietako bakoitzaren edukia laburbilduz.